



## HIZKUNTZA PROIEKTUA

### Zertarako hizkuntza proiektua?

Gure ikastetxeko errealitate soziolinguistikoa kontuan izanik, hizkuntzen presentziaren, erabileraren eta didaktikaren inguruan egindako gogoetei zein hartutako erabakiei koherentzia emango dion markoa da Hizkuntza Proiektua. Azpimarratzekoa da euskara eta euskalduntasuna dituela abiapuntu.

Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak helburu hirukoitza du: alde batetik, curriculumeko hizkuntzen tratamenduaren inguruko alderdiak lantzea; bestetik, eskolak bere hizkuntz prozesua kudea dezan ahalbidetzea, ikasleen hizkuntza komunikaziorako gaitasuna hobetzen laguntzeko asmoz, eta azkenik ikastetxeko hizkuntzen erabilera irizpideak jasotzea. Zeregin hauetan aspaldidanik ari gara eta etengabeko berrikusketa egin izan dugu.

### Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak

Gaur egun, San Martin Agirre Herri Eskola Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa da. Kalitatezko eskola euskaldun, inklusibo eta jasangarria eskaintzen dugu.

### Bergarako datu soziolinguistikoak

Euskal Autonomia Erkidegoko erdialdean dagoen herria da Bergara, Gipuzkoako hego-mendebaldean, eta Debagoieneko eskualdean;

Orokorrean udalerrri euskalduna bada ere, erabilera datuak ezagutzarenak baino baxuagoak dira. 15.000 biztanle, eskas.

Gaitasuna: %68 euskalduna, %16 ia-euskalduna. Kale erabilera, %40-45 inguruan. (Bergarako Udala).

### Ikasleen etxeko hizkuntza-giroa

Euskara da ikasleen % 33.5en familia-hizkuntza; erdara ikasleen % 38en familiahizkuntza (erdara euskara ez den den beste edozein hizkuntza izanik:

gaztelania, txinera, arabiera eta abar); eta ikasleen %28en familietan euskara zein erdara erabiltzen dira.

### **Ikasleak: erabilera eta jarrerak**

- Ikasleen arteko euskararen erabilera ikasgela barnean zein irakasleekiko harremanetan altua da ( % 71.42). Egoera ez formaletan berriz erabilera hori guk nahiko genukeena baino gehiago jaisten da. Herrian gertatzen denaren erakusgarri da gure eskola.

### **Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzei dagokienez**

1997-98 ikasturteaz geroztik, Hizkuntza Normalkuntza Proiektuan lanean ari gara. Ikastetxean etengabe daukagu kontuan euskararen ardaztu nahi dugula heziketa prozesua.

Gainera, gure ikastetxeak aspaldi ekin zion eleaniztasunaren bideari, eta horren adibide dira:

- Ingeles goiztiarra martxan jarri zenetik, San Martin Agirre herri eskola egitasmo horren parte izatea
- INEBI programaren barruan hizkuntzen trataera bateratuarekiko konpromisoa aurrera atera nahian urteetan zehar lanean aritzea.

2010-2011 ikasturtean martxan jarri zen Ingelesezko Egonaldiak esperientzietan seigarren mailako ikasle eta irakasleen parte-hartzea

Atzerriko hizkuntzarekin izandako esperientziaren ostean, Marko Hirueleduna proiektuari heldu genion 2011. urtean. (Laugarren mailako hiru talderekin Marko hirueleduna proiektuari heldu izana (2011-2012, 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan)

- ELEANIZTASUN proiektua (2014- 2015, 2015- 2016 ikasturteak)

Ikastetxean eginiko balorazioaren arabera, ondorioztatu genezake ingelesa lantzeko egin diren saiakera guztiak positiboak izan direla. Marko Hirueleduna proiektuak eskaini digun aukera azpimarratuko genuke, ingelesez irakatsitako orduen kopuruak lotura zuzena izan baitu ingelesean lortutako mailarekin. Gauza bera gertatu da euskararekin ere. Euskaraz irakatsitako orduen kopuruak, gelan erabilitako metodologiak (hizkuntzaren erabilera bultzatzen dituenak) eta egoera ez formaletan

euskararen erabilera sustatzeko egindako esfortzuak ikasleen arteko euskararen erabilera maila % 71.42koa izatea ahalbidetu du.

Bestalde Lehen Hezkuntzan 2009. urteko irailean irakas-praktika aldaketa hauek jarri ziren martxan, eskolan onartutako proiektu globalaren baitan. Haur Hezkuntzan, diziplinarteko proiektuak urte batzuk lehenago jarriak zeuden ordurako.

- Diziplinarteko proiektuetan oinarritutako irakasteko eta ikasteko prozesua aurrera eramateko metodologia, hirugarren zikloan Eskola 2.0 programak eskura jartzen dizkigun baliabideak ere integratuta.
- Diziplinek beraien artean komunean dituzten ezaugarrien lanketa modu integratuan eta ildo nagusi baten inguruan. Aldi berean, arlo bakoitzak dituen berezitasunak jorratzeko denbora eta guneak kontenplatuta.
- Ikasleak eginez ikasten duela-eta, kompetentziak garatzeko bidean, ikasleari heziketa prozesuaren protagonismoa eta ardura eman, metodologia aktiboa bultzatuz.

Hizkuntzeekin egindako ibilbideak eta gehien bat metodologia aldaketak Hizkuntzen Programazio adostua lantzeraino eramantzen gintuen.

### **Planteamendu eleanitza**

Poliki poliki Tratatua Bateratua errealitate bihurtzen ari gara talde batzuetan diziplinarteko proiektuen bitartez.

Hizkuntzen programazio adostu horren oinarriak geureganatuta, metodologia bera erabiltzen dugu hiru hizkuntzen irakaskuntzan, horien artean dauden aspektu komunen transferigarritasuna aprobetxatuta eta bakoitzaren berezitasunei erreparatuta. Ondorioz, hiru hizkuntzen irakaskuntzarako baliagarria izango den planifikazio osoa gauzatzen dugu.

Astero, mailako tutoreak eta, ahal den neurrian, ingeleseko berezilaria eta ikasketa burua biltzen dira programatze saioetan; HTBren ildotik ekiten diote eginbeharrei eta, testuen lanketan oinarrituta, diziplinarteko proiektuen inguruan lana antolatzea eta programazioa gauzatzea izaten dute jomuga. Ikastetxean bertan sortutako "Hizkuntzen Alderdi Testuala" txostena erabiltzen dugu testuak ahoz zein idatziz lantzeko. Dokumentu hori eskolan sortu genuen eta testuen inguruko hainbat

informazio biltzen ditu: testu mota desberdinak, bakoitzaren egitura, testu mota bakoitzeko genero desberdinak, genero bakoitzaren ezaugarriak, testu mota bakoitzean kontuan izan beharrekoak...

Curriculumak markatzen dituen gaitasunak lortu ahal izateko, programazioaren helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak aldez aurretik adosten ditugu; beti ere testuinguru errealak erabilia. Bestalde, hizkuntza desberdinen ahozkoaren erabilera sustatze aldera, ikaskuntza kooperatiboko hainbat dinamika ere txertatzen ditugu egunerokotasunean.

Gure Hobekuntza Planen baitan ere hiru hizkuntzetan "testuen lanketa" oinarri duten jardueri ematen diegu lehentasuna. Testu mota eta genero bakoitzaren ezaugarriak aztertzearekin bat, sortutako egoera komunikatibo horiek aprobetxatzen ditugu testuko elementuak eta hiztegia jorratzeko.

Normalean euskara izaten da abiapuntu testuaren hausnarketa egiten hasteko. Testu motaren egitura eta ezaugarriak euskaraz lantzen dira, beste hizkuntzetan euskaraz landutako egiturari erreferentzia eginez. Ondoren, hizkuntza bakoitzak dituen berezitasunak (gramatika, ortografia ...) aztertzen eta konparatzen dira. Adibidez: substantiboa lantzen ari bagara, ikasleen arreta euskarak duen deklinabidera eramango dugu eta, hausnartu ondoren, beste hizkuntzetan gure deklinabidea nola adierazten den landuko da, gazteleraz preposizioak, ingelesez preposition...

### **HIZKUNTZEN PLANGINTZA OROKORRA**

Testu-mota (argudioa, narrazioa, azalpena...) da proiektuaren ardatz nagusia, hizkuntza bakoitzean berriz hainbat generotako testuak (albistea, ipuina, mahai-ingurua, horma-irudia...) ekoiztea helburua.

Azken ekoizpenak, idatziak nahiz ahozkoak, komunikazio-xede zehatza du hizkuntza bakoitzean. Hori horrela, hizkuntza bakoitzean ikasitakoa beste hizkuntzetara transferituko litzateke eta beste hizkuntzetan erabili ahal izango litzateke. Ondorioz, curriculumeko beste hizkuntza batean landutakoa ez litzateke errepikatuko beste hizkuntzetan. Aitzitik, hizkuntza batean ikasitakoa bestean sendotzeko edo finkatzeko aukera izango lukete ikasleek.

Ikuspegi komunikatiboa eta hizkuntzaren erabilera dira hizkuntzak irakasteko eta ikasleen hizkuntza-trebetasunak hobetzen laguntzeko oinarriak. Hura ikasteko eta ikasitakoa hobetzeko erabili egin behar da, baita erabilera horren gaineko gogoeta egin ere. Hizkuntzak inguru formaletan eta ez-formaletan ikasten dira, hitz eginez, solasean arituz, entzunez, idatziz eta irakurriz, askotariko komunikazio-egoerei modu eraginkorrean erantzunez.

Hizkuntzen ikuspegi bateratu horretan hizkuntza bakoitzak bere tokia du:

**Euskara** da ikasgai eta ikasbide, maila zein kurtso guztietan. Hots, euskara da hizkuntza behikularra. Proiektu eleanitzaren barruan euskararen garrantzia ziurtatzen dugu, horretarako Ulibarriko urteko planean proposatzen ditugun jarduerak abian jartzen ditugu ikasturtero. Gainera, euskara da komunikazio-hizkuntza ikasleekiko harremanetan eta haiei dagozkien geletako jardueretan. Lanean jarraitu beharko dugu gelaz kanpoko jardueretan euskara ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza izan dadin.

**Gaztelania**, berriz, ikasgai gisa daukate ikasleek Lehen Hezkuntzako 3.mailatik aurrera. Gainera, Lehen Hezkuntza guztian, gaztelaniazko ahozko komunikazio-gaitasuna garatzeko saio batzuk egiten ditugu: solasaldi dialogikoak...

Lehen zikloan proiektuetan txertatzen da beharraren arabera; guraso erdaldunak hitzaldi bat ematera datozenean edo bideoen bat behar badugu, kasu.. Errutinak lantzerakoan ere badago gazteleraren presentzia.

**Ingelesa:** Ikasgai da HH 4 urtetik aurrera. Ikasbide ere LHko 3. mailatik aurrera, gehienetan gizarte eta natura arloak lantzerakoan. Gela barruko komunikazio-hizkuntza ere bada ikas-irakaskuntza jarduera horietan.